



2024ko ORRI EUKARISTIKOA

PLANETA ALDATZEKO GAI
DEN ESPEZIE BAKARRA

GIZAKI-EFEKTUA

Manos Unidas CAMPAÑA CONTRA EL HAMBRE

Otsailaren 11n, igandea, Manos Unidasen
Jardunaldi Nazionala ospatuko dugu.

Gaurko liturgiarako, herrien aurrerapenaren aldeko
Eukaristia ospatzea proposatzen dizuegu (Erromatar
Meza-liburua, Hainbat beharren aldeko meza,
29. zk., 1041.-1042. or.). Urteko VI. igandeko
irakurgaiak aldarrikatuko ditugu (B zikloa).



SARRERAKO MONIZIOA

Ongi etorri Eukaristiara! Gaur, Lourdesko Ama Birjinaren Eguna dugun honetan, Gaixoaren Mundu Eguna ere bada, eta Manos Unidasen Gosearen Aurkako Kanpainaren Eguna. Aurten, hauxe izango da bere leloa: «**Planeta aldatzeko gai den espezie bakarra. GIZAKI-EFEKTUA**». Gaixotasunak ez digu guztioi berdin eragiten, eta klima-aldaketaren ondorioek ere ez. Gure senide asko, planetako leku asko eta askotan –gehiegitan–, desnutrizioak jota bizi dira, goseak, eta haietako asko hil egiten dira, batere itxaropenik gabe. Desberdinkeria eta injustizia oso zabalduta daude. Eukaristiak bat egin gaitzala otoitzean, eralda ditzala gure bihotzak, eta ekitera bultza gaitzala.



DIRU-BILKETAKO OTOITZA

(Erromatar Meza-liburua, 1041. or.)

IRAKURGAIETARAKO MONIZIOA

Jesusek legenardun bat sendatu zuen. Legenardunak, bere garaian, zeharo baztertuta egoten ziren bizitza erlijiosotik eta gizartetik, zikinak eta bekatariak zirelakoan. Jesusek «ukitu» egin zuen legenarduna, beregana hurbildu zuen, eta sendatu egin zuen. Bazterketa-egoeratik atera, eta bizitza komunitarioan txertatu zuen. Pauloren esanetan, ez zuen bere buruarengan pentsatzen, besteei laguntzeko moduan baizik. Eta jarduteko irizpide batzuk eman zizkigun.

OTOITZA



Apaizak: Egin dezagun otoitz Elizaren eta munduko herri guztien beharren alde.

- Elizaren alde, ausardiaz eta beldurrik gabe zabal dezan Ebanjelioaren berri ona, beti errukitsu jokatuz.
Egin dezagun otoitz.
- Erabakiak hartzeko ahalmena dutenen alde, kalteberak babestearen alde egin dezaten, justizia eta berdintasuna bultzatuz. **Egin dezagun otoitz.**
- Gaixoen eta hauskor sentitzen direnen alde, gure senidetasun-besarkada, hurbiltasuna eta goxotasuna senti ditzaten. **Egin dezagun otoitz.**
- Aitaren etxera joan zaizkigunen alde, eta mundu hau zaintzeko eta hobetzeko ahalegina egin zutenen alde; bereziki, Manos Unidasen bitartez herrien garapena bultzatzeko lanean aritu zirenen alde.
Egin dezagun otoitz.
- Gure alde, Elizaren irakaspenekin bat etorritz bizi gaitezen eta denon etxea den planeta hau zaintzeko konpromisoa har dezagun. **Egin dezagun otoitz.**

Apaizak: Jainko ona, zuzen itzazu gure pausoak eta entzun gure otoitza.
Jesukristo gure Jaunaren bitartez.



DIRU-BILKETARAKO MONIZIOA

Gaur jasotzen dugun dirua Manos Unidasek herrialde behartsuei garatzen laguntzeko antolatzen eta gauzatzen dituen proiektuetarako izango da.

ESKAINTZAK

Ogiarekin eta ardoarekin batera, Manos Unidasen kartela ere aurkeztuko dugu.

ESKAINTZEN INGURUKO OTOITZA

(Erromatar Meza-liburua, 1042. or.)



JAUNARTZEAREN OSTEKO OTOITZA

(Erromatar Meza-liburua, 1042. or.)



HOMILIARAKO IRADOKIZUNAK

▲ Komunikazioaren gizartean, inkomunikazioan bizi gara, elkartasunik gabe: ez ditugu bizilagunak ezagutu ere egiten, bizkarra ematen diogu kideen bizitzari, ez zaigu axola senideak nola bizi diren, etorkinak arriskutsuak iruditzen zaizkigu, drogazaleak eta gaixotasun kutsakorrek dauzkatena epaitu eta baztertu egiten ditugu...

▲ «**Urrutiko kontrolari lotuta**» bizi gara, bakartuta, errealitatea ukitu gabe eta mundua ezagutu gabe. Urrutitik –«urrutiko kontrolarekin»– ematen ditugu konponbideak, jendea epaitzen eta gaitzesten. «Kutsatzearen beldur» gara.

▲ Legenarduna izatea ezbehar handia zen Kristoren garaian, legenarra zutenak baztertu egiten zituztelako gizartetik: ez zeukaten aurrera egiteko modurik. Sendatzea lortzen zutenek ez zuten osasuna bakarrik berreskuratzen: duintasuna ere lortzen zuten, eta gizartean berriro parte hartzeko aukera ere bai. Bizitza berri bat lortzen zuten.

▲ Jesusek eskua luzatu zion legenardunari, ukitu egin zuen, sendatu, eta gizarteko eta erlijio biziaren txertatu. Jesusek ez zuen urrutiko kontrola erabili: zauriak bere eskuekin «ukitu» zituen. **Jesus, «ukitu» izan ez bagintu, ez zen «gizon bihurtutako Jainko» izango.**


▲ Gaur egun entzuten al dugu sufritzen ari direnen oihua? Kasurik egiten al diegu? Hurbiltzen al gara haiengana, ala limosna ematearekin eta hitz lauso batzuk esatearekin konformatzen gara? Paulok esaten digu: «Egizue nik bezala: Kristoren bideari jarraitu».

▲ Manos Unidasek ez die entzungor egiten klima-aldaketak eta gu guztion etxearen edo planetaren narriadurak eragindako desberdinkeriei. Errealitate horren aurrean, baliabideak neurritz kontsumitzea gomendatzen dugu, otoitz eginez eta sufritzen ari diren senideei lagunduz.

EGINKIZUNA BETETZERA GONBIDATZEKO AZKEN MONIZIOA

Munduan, alde batera utzi behar dugu «urrutiko kontrola», eta «**hurbiltasunaren espiritualtasuna**» berreskuratu. Sufritzen ari direnak «zaintzeko» eta «sendatzeko», «ukitu» egin behar dugu haien sufrimendua.

Hala egin zuen Jesusek, hala egiten du **Aita Santuak**, eta guk ere hala egin dezagula esaten digu **Elizak**. **Manos Unidasek** ere bai. Zein da zure erantzuna?



Borondatezko Barauaren Eguna
2024ko otsailaren 9a, ostirala

Manos Unidasen Jardunaldi Nazionala
2024ko otsailaren 11, igandea



Kristau-prestakuntzarako material gehiago, hemen:
manosunidas.org/sensibilización-parroquias